


También se hace relación de las obras relacionadas con la historia social de Bilbao, o de trabajos de historia económica (González Portilla, Manuel Montero) o de carácter más general, Fusi, Olávarri o Corcuera, este ya en el campo de la historia social, al igual que la obra de J. J. Solozabal.

A lo escrito sobre el País Vasco de principios del siglo XX, en unos años de profunda transformaciones, el texto de Valdour añade una visión personal de un testigo excepcional. Un testigo a la vez investigador social y viajero singular que convive y trabaja con los obreros del País Vasco. Un testimonio fundamental para conocer la vida cotidiana de los primeros años el siglo XX. Y, más allá de valoraciones tópicas, no es lo de menos resaltar que esta publicación, con un perfil tan novedoso, ayuda a comprender mejor las circunstancias de ese período tan convulso y complejo.

José Vicente Iriarte Areso



XAMAR

Orekan. Herri eta hizkuntzen ekologiaz

Iruñea : Pamiela, 2001. - 166 or. : 26 cm. - ISBN: 84-7681-345-7.

Hizkuntzekin zerikusia duten gaiei buruzko gogoeta egiten du Xamar idazle nafarrak bere hirugarren liburu honetan. Hizkuntzaren inguruko diskurtso teorikoak herritarrengana hurbiltzeaz gain, Jose M^a Sánchez Carrionen –Txepetxen– teoriak modu errazean aurkezten ditu; eta horrekin batera, hizkuntzen eta gizakiaren garapenaren artean dagoen lotura estua nabarmentzen du, baita hizkuntzaren auziaren inguruan gogoeta bultzatu ere.

Orekan. Herri eta hizkuntzen ekologiaz liburuak *Orhipean*, bere lehenengo lana, osatzen du; edo bestela esanda, hirugarren liburu hau *Orhipean* liburuaren ildotik egina dago. Liburu hartan Ori mendiaren magaleko kultura eta historia aztertzen zuen. Zuberora eta Nafarroa arten dagoen Ori mendia eta haren ingurua hartzen zituen aitzakiatzat hango eta, ondorioz, Euskal Herriko kulturaren eta historiaren berri emateko. *Orekan* liburuan, aldiz, hizkuntzaren auzia aztertzen da sakonean. Biak ere era dibulgatiboan idatzirik daude, eta euskal nortasunaren egoerarekin eta etorkizunarekin arduratuta dagoen norbaiten ikuspuntuak erakusten dituzte. Batak kultura eta historia hartzen ditu oinarritzat, besteak hizkuntza.

Orekan liburuak 166 orrialde eta bi zati nagusitan banaturik dauden 20 atal ditu. Lehenengo zazpi ataletan, hizkuntzen eta bizitzaren eta gizakiaren garapenaren arteko lotura estua nabarmentzen da. Horretarako, bizitza eta gizakia nola sortu diren, eta gizakia nola bilakatu den berbadun aztertzen da. Ekologiaren ezagutzetatik abia-

tuz, hizkuntzen egoera eta bilakaera ulertzeko informazioa ugari ematen da. Alegia, hizkuntza guztien gordailu den gizadia oreka bizigarrian garatzeko eta irauteko behar diren baldintzak agertzen dizkigu Garraldako idazleak.

Hizkuntzen auzia ekologiaren ekarpenekin uztartzeko joera hau gero eta hedatua dago hizkuntzalari eta soziolinguisten artean. Asko dira azken urteotan hizkuntzen eta herrien egoera eta bilakaera ulertzeko ekologiaren ezagutzak eta planteamenduak erabili dituztenak. Hizkuntzalari eta soziolinguista hauen arabera, industrializazio prozesua hedatu baino aurretik, berez auto-erregulatzen zen sistema bat osatzen zuen dibertsitate linguistikoak eta kulturalak. Gaur egun, era askotako faktoreen eragina medio, sistema honek galdu egin du iraganean zuen auto-erregulatzeko gaitasun, eta kontrolatzea edota babestea eskatzen du. Bestela, eleaniztasuna desagertu egingo da, eta homogeneotasun kulturala gailenduko da.

Peter Mühlhäusler Australiako irakaslearen lanak dira ekologiaren ekarpenak hizkuntzen auziarekin lotzeko egin diren saioen adibiderik argienetarikoa. Bere *Linguistic Ecology: Language Change and Linguistic Imperialism in the Pacific Region* (Routledge, 1996) liburuan ondo baino hobeto landu du hizkuntzen ekologiaren arteko harremana. 2001. urtean *The Linacre Journal*-eko 5. zenbakian "Language as and Ecological Phenomenon" izenburuarekin argitaratu zuen artikulua ere, ekologia eta hizkuntzak lotzen dituen joera intelektual honen ekarpen garrantzitsua da.

Lehen zazpi ataletan herri eta hizkuntzen ekologiak hitz egin ondoren, *Txepetxek* egindako ekarpenaren bertsio dibulгатiboa eskaintzen du idazle nafarrak liburuaren bigarren zatian. Hau da, zortzigarren ataletik hogeigarrenera, 1991. urtean *Txepetxek* plazaratu zuen *Un futuro para nuestro pasado* obrako planteamenduak, teoriak edota ideiak modu errazean azaltzen ditu.

Xamarren liburu hau ez da *Txepetxek* teoriak modu errazean aurkezteko egiten den lehen saioa. 1998. urtean argitaratu zen *Txepetxekin solasean. Biziaren Hizkuntzaz* liburuan ere Jon Sarasuak *ausartu, sartu* eta *sortu* hirukoa erabiliz, *Txepetxek* ideiak era dibulгатiboan aurkezten zituen.

Jon Sarasuaren liburu hura oso erraz irakurtzen bazen ere, Xamarren lan hau modu erakargarriagoan eginga dago. Koloretako argazki, irudi, mapa eta baliabide ugariak begietatik sartzen digute liburua, eta horrekin batera, *Txepetxek* teoriak. Liburuan zehar agertzen diren baliabide ikusgarriak irakurlearengana errazago heltzen laguntzen dute.

Xamarren lan hau ekarpen garrantzitsua da Euskal Herrian bizi dugun hizkuntzaren auzian. Izan ere, autoreak berak behin baino gehiagotan esan duen bezala, diskurtso teorikoa gizarte mailara ez ailegatzearen ondorioak nabarmenak dira gure artean. Hizkuntzei buruzko teoriarik gabe, hizkuntzaren aurkako erasoan aurrean biluzik gaude, eta ez dakigu nola defendatu. Zentzu honetan, liburu honek euskararen aurkako erasoei erantzuteko argudio ugari ematen du. Orekatik abiatuta, hizkuntzen aurkako erasoan aurrean erantzun sendo eta bizigarria osatzeko arrazoiak ematen ditu.

Horrekin batera, hizkuntzen inguruan dauden aurreiritzi eta pentsamendu oker asko zapuzten ditu. Besteak beste, giza aniztasunaren ardatza kulturen aniztasuna dela diosku; arrazez hitz egitea ergelkeria da. Hizkuntzek egiten dute mundu hau anitza. Horrekin batera, hizkuntzen artean euren balioaren edota prestigioaren arabera egindako sailkapenen baliorik eza, euskalkien eta hizkuntza estandarren osagarritasuna eta aniztasuna mestizaiarekin konpondu nahi duten ideologien tranpa bezalako gaiak jorratzen dira.

Hizkuntzen auzia gizakion auzi guztien muinean dagoela kontuan hartuz, liburu hau euskaldunontzat ez ezik gutxitutako beste hizkuntzen egoerarekin arduratuta daudenentzat ere tresna baliagarria izan daiteke. Gutxitako egoeran dagoen edozein hizkuntzarentzako eskaintzen dituen ekarpen garrantzitsuak eta hizkuntzekin zerikusia duten gaiei buruzko dibulgazioa lana ondo egina dagoela kontuan hartuz, interesgarria litzateke beste hizkuntza batzuetara itzultzea.

Orhipean. Geure herria ezagutzen (Pamiela, 1992, 2001) eta *1898, Garralda* (Pablo Mandazen Fundazioa, 1998) liburuek bezala, hirugarren lan honek ere argi erakusten du sormen handiko idazle baten aurrean gaudela. Zer esan asko duen eta gogoetarako puntua ipintzen dakien pentsalaria da Xamar. Izan ere, bere hirugarren liburu honetan ere argudio eta ideia asko ematen ditu euskalgintzarekin eta, oro har, hizkuntzen egoera eta bilakaerarekin arduratuta gaudenentzat.

Liburu ederra, atsegina eta irakurterraza da. Hizkuntzak babestearen garrantziari buruz arrazoiak ez ezik, gizateriaren bilakaerarekin, gizadiaren egoerarekin, bioaniztasunarekin, arrazakeriarekin eta, oro har, *bizigintzarekin* arduratuta gaudenentzat gaurkotasuna duten hainbat gairi buruz pentsa araztera bultzatzen gaitu. Irakurtzea merezi duen liburua da. Ez dizue defraudatuko.

Patxi Juaristi Larrinaga